



Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideek inoizko emaitzarik onenak lortu dituzte

Itsaso Leunda, Maialen Muñoz, Aitor Regillaga eta Aimar Agirresarobe triatloiarekiko zaletasunak elkartzen ditu; aurtengo denboraldiaren errepasoa egin dute **6**

tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza



Asteazkena, 2013ko abenduaren 18a. 1. urtea. 44. zenbakia. www.ataria.info



Langileak pozik, txalo eta malko artean, itzuli ziren lanera; azaroaren 19an hasi zuten greba mugagabea. MIKEL IRAOLA

Lanera bueltatu dira

Zizurkilgo Marie Bizard ez dute itxiko eta langileak lanean hasi dira baldintza berean **2**

MIGRATZAILE GUTXIEN DITUEN ESKUALDEA

92 jatorritako herritarrak daude Tolosaldean; bihar, 'Balta txuria, Balta berdea' lana aurkeztuko dute **4-5**

26,5 milio euroko aurrekontua aurkeztu du Tolosako Udalak **3**

ZE ESATEK! TALDEAREKIN SOLASALDIA IZANGO DA GAUR, ALTZON **7**

TOLOSAKO EAJ-K, BILDUK UDALEAN «EZER GUTXI» EGIN DUELA NABARMENDU DU **5**



MERK&TO

RONDILLA, 10 - TOLOSA

Arraindegia
943
506
361

Okindegia
943
506
362

Frutadegia
943
506
363

Harategia
943
506
364



NARANJA
sarea - 2 kg

0,99 €



Kanarietako
PLATANOA

0,99 €/Kg



BAKAILU KOKOTXA
bandeja (500gr) *

6,90 €



TXANGURRU
betea (500gr) *

3,90 €



Zaharraren
TXULETA

9,90 €/Kg



AZPIZUNA
(Solomillo)

19,50 €/Kg



**ARKUMEA -
ANTXUMEA**

9,90 €/Kg

Borrokak eman ditu fruituak



Langileak pozik, txalo eta malko artean, itzuli ziren lanera; azaroaren 19an greba mugagabea hasi zutenetik, hilabete gogorra izan dute. M.I.

Marie Brizard ez dute itxiko eta langileak lanera itzuli dira baldintza beretan; 55 urtetik gorakoei erretiroa aurreratu diete

MIKEL IRAOLA ZIZURKIL

Amaitu da 48 familiren amesgaiztoa. Hilabeteko borroka gogorraren ondoren, Zizurkilgo Marie Brizard-eko langileak lanera itzuli dira, zuzendaritzarekin adostutako baldintzak aho batez onartu eta gero.

Astelehenean denbora luzez bilduta egon ostean, enpresako zuzendaritzarekin aurreakordio bat lortu zuen langile batzordeak. Bada, atzo goizean langileen batzarra egin, eta erabateko adostasunarekin onartu zuten akordio hori. Hain zuzen ere, 42 langilek eman zuten aldeko bozka, eta bat bera ere ez zen aurka azaldu. Beraz, lanera itzuli ziren langileak.

Akordatutakoaren arabera, enpresak kaleratzeko kolektiboa eta lantegia ixtea zekarren enplegua erregulatzeko espedienteak erretiratu egingo du, eta ez da kaleratzerik izango. Aldiz, 55 urtetik gorako langileei -11 dira egoera honetan aurkitzen direnak- erretiro aurreratu igorriko diete, soldata garbiaren %80a bermatuko zaielarik.

Gainontzeko langileei, orain arteko lan baldintzak mantenduko zaizkie: soldata bera jaso eta lan ordu kopuru bera izango dituzte. Izan ere, lan hitzarmena blindatzea adostu dute, inolako murrizterik gabe. Honek Espainiako erreforma laborala aplikatzea sahiestuko luke. Dena den, aldi

baterako erregulazio espedienteak jarriko du martxan enpresak, gehienez hiru hilabeteko iraupena izango duena. EEE hori, ekainaren 30ean amaituko litzateke.

Goizeko hamaiketan itzuli ziren beren lanpostuetara, txalo eta malko artean, pozik. Langile ordezkariak konforme azaldu ziren lortutakoarekin: «Oso pozik gaude, azken hilabete hau oso gogorra izan baita. Ez genuen espero hain azkar iritsiko zenik», azaldu zuen Mikel Martinezek lanera sartzerakoan.

Lortutakoa «hilabete osoko borrokaren emaitza» dela ere aitortu zuen Martinezek: «Enpresak hondoratu nahi gintuen, baina tinko eutsi diogu, lana bazegoela eta lanean jarraitu nahi genuela aldarrikatuz. Antzeko

egoeran dauden langileentzako eredu izan beharko luke honek, borrokak merezi izan du».

Zizurkilgo Udala, pozik

Zizurkilgo Udal Gobernuak zoriondu egin ditu Marie Brizard enpresako langileak hilabetean egindako borroka eta negoziaketen ostean enpresaren itxiera saihesti dutelako. Joxe Mari Luengo alkatea langileekin izan da goizean akordioaren berri jasotzeko. «2013a urte gogorra izan da Zizurkil. Akordio hau urtea hobeto amaitzeko behar genuen albistea da», nabarmendu du.

Udalak datozen orduetan kendu zuen langileen eskura enpresa atarian jarritako etxola. Aurrerantzean ere langileen ondoan egoteko kon-

promisoa hartu du Luengok. «Guk argi dugu gure lekua non dagoen. Zizurkilen dagoen industria ehuna mantentzeko lanean eta okerren pasatzen ari direnen ondoan».

Bestalde, ELA sindikatua ere gus-tura azaldu da Belvedere multinazionalak hartutako erabakiarekin, eta horrelako egoeretan, enpresei aurre egiteko, «borroka eta langile sindikalizatuen ekintza antolatua besterik ez» dagoela azaldu du.

Tolosaldeko herritarrei ere, bereziki, eskerrak eman dizkie sindikatuak larunbateko manifestazioan jasotako babesagatik. Kinka larrian dauden gainontzeko enpresetako langileei, berriz, «borrokan jarraitzeko» eta «itxaropena ez galtzeko» mezua helarazi diete.

Irudia Tolosa



Hezkuntzako murrizketen aurka

Tolosako ikastetxe publikoetako ikasle, guraso eta langileek elkarretaratzea egin dute hezkuntza publikoan murrizketak egitearen aurka, ELA, LAB, EILAS eta ESK sindikatuek deituta: «Kalitate oneko zerbitzu publikoen sistemak, ezinbestez, planifikazio egokia eta giza nahiz material errekurtsu nahikoak» eskatzen dituela azaldu dute. I.G. L.



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

26,5 milioi euroko aurrekontua proposatu du Udal Gobernuak

Gastu sozialari pisu gehien eman eta %2,5 handitu nahi dute 2014rako aurrekontua

ITZEA URKIZU

2014ko aurrekontuen proposamena herri batzarrean jendarteratu zuen Udal Gobernuak. Datorren urteko jomuga eta inbertsio nagusiak plazaratzeaz gain, 2013. urteko balorazioa, nahiz aurrekontua osatzeko herritarren artean jasotako 500 ekarpenak ere hizpide izan ziren. Hurrengo urtean ere gastu sozialari garrantzia nabarmena eman nahi diote, eta %2,5 igoko dute aurrekontua, iazkoarekin alderatuta.

Amaitzean den urteko baloraziorri dagokionez, aipatzekoa da aurrekontuaren emaitza positiboa izango dela: diru-sarrerak 24.400.000 eurokoak izan diren bitartean, gastua 24.000.000 eurokoa izan da aurtentzen. Horrenbestez, 400.000 eurokoa da gerakina.

Honen harira, Lore Agirrek eta Ibai Iriartek Elosegri parkea izan zuten hizpide: «2011n zortzi milioiko zorra zuen udalak eta jada bost ordaindu ditu. Nabarmenezkoa da, gainera, aipaturikoa aurrekontu arruntetik ordaintzen ari dela udala». Beraz, urtero milioi 1 euroko kopurua bideratzen du udalak Elosegri parkeko zor historikoa ordaintzera, «eta honek inbertsioak egitea mugatzen du», diote.

2013an bi lehentasun izan dituzte udal ordezkariak: gastu soziala sustatzea eta gizarte inbertitza. Horrela, udaleko sail guztien jarduna erreparatuz, honakoak izan dira aurtengo inbertsio nabarmenenak: Berazubi estadioko eraberritzearen lehen fasea, Amaroako Iruña etorbideko obretarako inbertsioa egitea, Oria kaleko espaloia zabaltzea, landa auzoetako inbertsioak, Euskal Herria plazako etxebizitza dotazionalak egiten hasteko inbertsioa, autokarabanen gunea eta Elosegri parkea.

Aurrekontuak herritarrengana hurbiltzeko nahiarekin, eta urte berriari begira, ekarpenak jasotzeko egitasmoa martxan jarri zuen udalak, duela zenbait aste. Guztira 500 proposamenetik gora jaso dituzte, eta gehien errepikatu diren ideiak ezagutarazi zituzten batzarrean,

“**Parekidetasun batzordeko aurrekontua bikoitza izango da**

erantzunak emanez. Herritar bakoitzari, berriz, modu pribatuan erantzungo dio udalak, banan-banan.

26.520.185 euroko poltsa

2013koa baino %2,5 handiagoa izango da 2014ko aurrekontua, eta berriro gizarte politikari eman nahi diote garrantzia. Bide horretan, be-



Herritarrekin osatutako irisgarritasun planak jarraipena izatea proposatu du Udal Gobernuak, 2014rako. ITZEA URKIZU

har larriei erantzuteko poltsa %15 handitzea proposatu dute, esaterako.

Parekidetasun saila ere indartzeko erabakia hartu dute, eta bikoitza egingo dute sail honetako aurrekontua. Horrela, jada abian diren egitasmoekin batera, III. Berdintasun plana garatzeko asmoa dute, adibidez.

Era berean, krisiak sorturiko egoera larrien aurrean bi lan-ildo nagusi markatuko ditu Udal Gobernuak: krisiaren aurkako planerako 793.180 euro bideratuko dituzte, eta Tolosaldea Garatzen sustatzeko beste 150.000 euro.

Kultura, gazteria eta jai arloetatik hirurak indartuko dituzte, eta egitasmo nabarmenen artean Tolosako eragileen arteko elkarlana sortzeko plana eta Tolosako Ekinbide

Etxeari ematen zaion laguntza izango dira; azken hau mantentzea erabaki dute, 80.000 euroan.

2014an ere herritarren parte hartzea sustatzen jarraitzeko bideak irekiko dituztela azaldu dute, eta ho-

“**Krisiari aurre egiteko poltsara 793.180 euro bideratuko dituzte**

nako proiektuak dituzte eskuartean: Haurren hiria, Hirugarren adinekoen mahaia, Tolosa sortzaile, Mugikortasun eta irisgarritasun planarekin jarraitzea (120.000 euro), Osakidetzarekin elkarlanean hirugarren adinekoen *Ibilbide osa-*

suntsuak garatzea (35.000euro) eta 2.0 Webgunea sortzea.

Azkenik, Udal Gobernuak kideek 2014rako inbertsio nagusiak ere aurreikusi dituzte. Amaiur parkea estali eta egokitu egin nahi dute, eta landa auzoetako inbertsioekin jarraitzea ere lehentasunen artean dute. Halaber, hondakinen biltzarako sistema berria jartzea inbertsioen artean izango da, eta Elosegri parkeko zorra ere bai. Zaharberitze planen artean, Berazubiko bigarren faseko finantziarioa lotzen ari direla jakinarazi dute, eta Alde Zaharreko lokalak eraberritzeko proiektuak ere aurrera jarraituko du.

Aurrekontu proposamena nahiz herritarren aldetik gehien errepikatutako diren ekarpenak www.tolosakoudala.net atarian daude ikusgai.

«Proiektuak gauzatzeko arriskua» ikusten du EAJK

Bilduri lantaldea eratzea proposatu dio, «epe ertain eta luzera begirako proiektuak zehaztu eta lanean hasteko»

IÑIGO TERRADILLOS

EAJK bi urteotako Udal Gobernuaren balantzea egiterako orduan, aurreko legealditik zetozen proiektuak gauzatzetik haratago «ezer gutxi» egin dutela nabarmendu du. Larra mendiko urbanizazioa eta lurperatzea, Alondegiko etxebizitza, Bera-

zubiko estadioaren berritzea, Amaro eta herrigunea lotzeko proiektua edota Euskal Herria plazako etxebizitza aipatu dituzte azpiegiturretan, eta Tolosa Merkat edota enplegu planak bezalako proiektuak ere bai. Lehendik zetozen egitasmoak direla azaldu, eta adostasunera iritea eta horiek gauzatzeko poztetia dela aipatu dute.

Hala, gisa horretako planek denbora asko eta lan handia eskatzen dutela argudiatuta, proiektu berrietan pentsatzeko lanean hasteko unea dela azaldu du Jokin Azkue EAJKko zinegotziak: «Pisuzko proiektuak direnak ez dira legealdi baka-

rrean garatzen, aurretik hasitakoak izan ohi dira. Hori dela eta, orain ez badira abian jartzen, hurrengo legealdian ez da ezer egingo, eta Tolosak aurrera egin behar badu, proiektuak garatu behar ditu».

Ildo horretatik, alkatetzan dauden alderdiei lantalde bat osatzea proposatu die EAJK, «proiektuak burutu ahal izateko lehen urratsak emateko». Krisialdiak eragina duela onartu du EAJK, baina proiektuak zehaztu daitezkeela ere adierazi dute: «Gobernatzen duen alderdiak gobernatzeko duela, ezin dugu hurrengo legealdia proiekturik gabe utzi».



Nuria Carbonell eta Jokin Azkue, Tolosako Batzokiko agerraldian. IÑIGO TERRADILLOS

Beti alai jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Tolosaldea



Eskualde bat eta 92 jatorri

Eskualdeko herritarren %85,2 dira Euskal Herrian jaiok. Gainerakoen erdia baino gehiago Espainiako Estatuan jaiok dira. i.r.

Tolosaldeko herritarren jatorri anitzen mapa aurkeztu dute; migratzaileen kopurua mantendu da azken urteetan

IÑIGO TERRADILLOS

Migratzaile kopuru baxuenetakoa duen eskualdea da Tolosaldea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai eta Gipuzkoa bertan ere. Espainiar Estatutik kanpoko nazionalitatea duten herritarrek %5,5 dira. 92 estatu ezberdinetan jaiotako herrita-

rrak bizi dira eskualdeko 28 herrietan. Horiematik %85,2 Euskal Herrian jaiok dira, eta gainerakoen, erdia baino gehixeago Espainian jaiotakoak dira. Ondoren, Marokon, Portugalen, Errumanian eta Nikaraguan jaiok daude. Bilakaerari dagokionez, azken urteetan migratzaile-

leen kopurua mantentzeko joera arida ematen, gurera etortzen jarraitzen duten arren, krisi egoerak bultzatuta, euren jatorrizko lurraldera itzultzea erabaki baitute askok. Datu horiek esku artean, gure herrietan dugun jatorri aniztasuna «oso berria» dela eta elkarren arteko integrazioa lortzeko denbora behar dela nabarmendu dute Tolosaldea Garatzenetik. Era berean, gure eskualdeko kopuru baxuek aniztasun horrekin lan egitea errazten dutela azpimarratu dute.

Aztiker enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta Tolosaldea Garatzenentzat egindako Tolosaldeko herritarren jatorri anitzen mapa aurkeztu zuten atzo. Eskualdeko migrazioa eta aniztasuna zertan den eta azken urteetako bilakaera azaltzeaz gain, Tolosaldeko maparen ezaugarriak gizarteratzea du helburu ikerketa lan honek

Bi migrazio olatu

Tolosaldean erroldatuta dauden herritarren %14,8 Euskal Herriatik kanpo jaiotakoa da. Horien artean bi multzo nagusi bereizten ditu ikerke-

tak: Espainiako Estatuan jaiotakoa da bata, 3.760 herritarrekin, eta Espainiatik kanpo jaiotakoa bestea, 3.149 herritarrekin. Bi multzo nagusi horiek zuzenean daude lotuta Euskal Herriak azken hamarkadetan jasotako bi migrazio olatuekin. 50-70. hamarkadetan Espainiako

urteetan, krisiaren eraginez, eta horri herritar ugari euren lurraldera itzultzen hasi dela gehitzeak migratzaileen kopurua mantentzea dakar ikerketak islatzen duenez.

Tolosaldea urrun dago migratzaile kopuruari dagokienez, beste eskualdeekin alderatuta. Goierrri bizi-lagunak, esaterako ia bikoiztu egiten du datua. Kristina Morales Tolosaldea Garatzeneko Migrazio saileko teknikariaren arabera, hori zuzenean lotuta dago bai lanarekin, bai eta eskualdeak eskaintzen dituen bizi baldintzekin ere. «Lan eskaintza handiagoa eta etxebizitza baldintza hobekak dituzten eremuetara jotzen dute, eta horrek argi uzten du lan bila datozela». Izan ere, Moralesek dioenez, «Gipuzkoa laguntza sozialetan gehien ematen dutenen artean badago ere, etorkin kopuru txikienetakoa duen probintzia da».

Gizarte laguntzen gaiak, hain justu, gaizkiulertuak eta ondorioz desadostasunak sortzen ditu, bereziki bizi dugun egoeran. Migrazio teknikariak dioenez, «asko hitz egiten da, esaterako, Oinarrizko Errentaren in-

“ Lan eskaintza gehiago dauden lekuetara jotzen dute etorkinek »

KRISTINA MORALES • TEKNIKARIA

Estatuko hainbat lekutatik Tolosaldera etorritakoak dira lehen olatukoak, eta azken bi hamarkadetan munduko herrialde askotatik etorriak bigarren olatukoak. Azken urteetan eman da bereziki olatu hori, eta munduko kontinente guztietatik etorri diren arren, hegoamerikarrak, ipar afrikarrak edota Europa barruan, portugaldarrak eta errumaniarrak nabarmentzen dira. Joera hori, baina, asko moteldu da azken



sarrerak

Atarikideentzat 3 sarrera pare ditugu

Abenduak 21, larunbata
20:30ean
Tolosaldeko Leidorren



Tolosako Orfeoia
Orfeón de Tolosa

Tolosako Orfeoia
Gabonetako
Konzertua



Zozketan parte hartzeko deitu GAUR 20:00ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira

Integratziara iristeko sorlekuetara doan dokumentala

'Balta Txuria, Balta Berdea' filma eskainiko dute, bihar, 19:00etan, Tolosako Topic aretoan, SOS Arrazakeriaren eskutik



Tolosako Bidaiarien Txokoaan aurkeztu zuten dokumentala. IÑIGO TERRADILLOS

I. URKIZU TOLOSA

Migrazioaren Nazioarteko Egunaren harira, integratziara iristeko hainbat urtetako egitasmo baten inguruko dokumentala ikusgai izango da, bihar, Tolosan. 19:00etatik aurrera, Topic zentroko aretoan izango da hitzordua, *Balta Txuria, Balta Berdea. Urumearen zurrumurrua* filma ikus-teko.

2012. urteko maiatzera atzera egin behar da ikus-entzunezko lan honen oinarrietara joateko. Astigar-ragako Udalak, jaurilaritzak eta al-dundiak herriko ijito errumaniarren kanpalekua auzo moduan errekonozitu zuen, eta biztanle hauek integratzeko bost urtera begirako egi-

tasmoa diseinatu zuten. Integrazio proiektu honetan aritzeko, ordea, Balta Txuria auzoko eta Balta Berdea auzoko herritar hauek hitzarmen bat sinatu zuten.

Kanpalekuko biztanleen iritziak, beste herritarrenak nahiz erakunde-enak bildu dituzte zuzendariak, or-dubeteko lanean.

Proiektzioaren ondoren solasaldia egingo dute, eta zuzendarietako bat den Anaitze Agirre, SOS Arrazakeriako Agustin Uzurrungazak, Balta Berdeako bizilagun Maripiana Bartusek eta Mikel Goenaga Astigarragako apaizak parte hartuko dute saioan. Tolosaldea Garatzenek bertaratzeko deia egin die herritar guztiei.

• ataria@ataria.info •

guruan, eta hori atzerritarrek jasozten dutenaren pertzepzioa dago gizar-tean». Datuek, ordea, bestelakoa dela errealitatea diote. Tolosaldean Oinarrizko Errenta jasotzen duten herritarrek 386 dira, eta horien artean, %25,9 dira nazionalitate espainiarra ez dutenak. «Ez dago gizar-te laguntzarik bereziki atzerritarren-tzat, behar-rean dagoen pertsonen-tzat baizik». Moralesek azaltzen duenez, krisi egoerek «lehen-tasun nazionala legitimatu ohi dute», eta ondorioz, herritarrek «zalantzan» jar-tzen dute norentzat behar duten izan gizar-te laguntzak. «Egoera txar-rean dauden pertsonak eduki be-

“ Lan egoki bat egiteko moduan gaude, elkarbitzita on bat izateko »

KRISTINA MORASES • TEKNIKARIA


har dute laguntza jasotzeko eskubi-dea; beste kontu bat da gizar-te la-guntzarik gabeko gizar-te eredu bat nahi dugun».

Gizar-te laguntzek zuzeneko lotu-ra dute langabeziarekin, eta kasu horretan, Espainiako Estatutik kan-po jaiotako pertsonen artean langa-bezia tasa handiagoa dela nabar-mendu behar da, hamar puntu han-diagoa, hain justu. Tolosaldean %14,6ko langabezia tasa dago, eta Espainiako Estatutik kanpo jaiota-koenari erreparatuta, %24,3ra igo-tzen da.


Fenomeno «berria»

Azterketak islatzen duenez, Tolosal-deko herritarren aldetik diskrimina-zio ekimen esplizituak ez dira asko izan, eta oro har, elkarbitzita giroa lasaia da, «jatorri ezberdineko per-sonen arteko harreman eta interak-zio askorik gabe, baina errespetuz-


Tolosaldeko 28 udalerritan 46.753 pertsona daude errolatuta 2013an



Euskal Herriko kanpo jaiotako herritarrek Tolosaldean



Espainiako Estatutik kanpoko nazionalitatea dutenen bilakaera



koak». Halaber, azken urteetan konfiantza falta eta errezeloa areagotzen ari denaren inpresioa azpimarratzen da, «krisi egoerek jarrera baztertzaleak areagotzea ekartzen baitute». Migrazio teknikariak, hala ere, gurean beste lurralde batetik datozenen artean bezala, «denetarik» dagoela dio. «Beste lurralderen bateko pertsonekin harremanik izan ez badugu, agian erraza da estereotipoetan erortzea, pertsonaren arabera da; elkar ezagutzeko aukera ematea da funtsezkoa».

92 jatorri ezberdinetako herritarrek aniztasun handia duen eskualdea bilakatu dute Tolosaldea. Hori bai, Kristina Morales teknikariak azaldu moduan, gurean fenomeno

hau «oso berria» da. «Azken 10-15 urteetako kontua da, beraz, denbora beharko da iritsi direnak gizar-tean integratzeko». Tolosaldera iritsi diren herritar berriek «gure gizar-tearen ezaugarriak» ikastearekin batera, ezinbestekoa izango da Morale-sen arabera, Tolosaldeko herritar-rrak errealitate berrira egokitzea: «Tolosaldea ez dela lehen zena ikasi behar dugu». Integrazioaz baino parte hartzeaz hitz egiten du Morale-sek, hau da, gizar-tean parte hartzeaz. «Migratzaile kopuru oso txikiak ditugu, beraz, lan egoki bat egiteko moduan gaude, etortzen direnei har-rera on bat egin, eta baliabideak jartzeko elkarbitzita egoki bat izate-ko».



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Pedro Luis sorta

Bi sorta

www.conservaspedroluis.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Mantangorri eskulan tailerra

Bi ale

Ezaugarriak:
Haurrek sorkuntza lantzeko tailerra.
24 fitxak osatzen dute bilduma, guztiek,
sorkuntzaren alor ezberdinak lantzen dituzte.



www.euskalherriko plaza.com


Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



Parte hartzeko deitu: 902-82 02 40 telefono zenbakira • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Izen apalek lortutako marka handiak

Denboraldi bikaina osatu dute aurtengoan Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideek. Banaka zein taldeka inoizko emaitzarik onenak erdietsita, arnasa eman diote Tolosaldean geroz eta zaletu gehiago dituen kirol honi



TTT-ko Itsaso Leunda, Maialen Muñoz, Aitor Regillaga eta Aimar Agirresarobe. J. T.

JULEN TELLERIA TOLOSA

Irakasleak dira batzuk. Ingeniariak beste batzuk, edota administrariak, kazetariak, modelistak. Zaletasun batek, ordea, guztiak elkartzen ditu: triatloiak. Zaletasun diogu, inor txo ere ez delako kirol honek emandako errentetatik bizi. Askok, inolako errentarik ere jasotzen ez duelako. Horregatik dute zaletasun, beste ezer baino gehiago.

Mahai beraren bueltan, zaletasun hau konpartitzen duten lau lagun elkartu ditu Atariak: Itsaso Leunda, Maialen Muñoz, Aitor Regillaga eta Aimar Agirresarobe dira eurak. Tolosaldeko Triatloi Taldeko partaide dira, geroz eta jendetsuagoa den talde batekoak, geroz eta indartsuago dagoen kirol batean.

Eguraldi onak amaitzearekin batera, amaitu zuten triatloi denboraldia TTT-koek ere. Orain, atzera begira jarri eta balantzea egiterako garaian, balorazioak ezin hobekak dira: «historikoki, inoizko emaitzarik onenak» eskuratu omen ditu Tolosaldeko taldeak, Regillagaren esanetan. Hiru lasterketatan garaile izanda, gustura mintzo da Regillaga, ez bere izenean soilik, baita taldeagatik ere.

Aurtengoan, asko izan dira arrakasta pertsonalaren gailurrean aritu izan direnak; azpimarratzekoak, taldeko neskak. Maila indibidualen zein kolektiboan, marka handiak lortu dituzte, nahiz eta lesioen erruz, urtea espero bezain borobila ez izan. Itsaso Leundak, adibidez, sei

“**Historikoki, inoizko emaitzarik onenak eskuratu ditugu aurten**”

AITOR REGILLAGA

hilabetez egon behar izan du geldirik, bizkarreko ebakuntza baten erruz, baina berriz ere hasia da triatloia saltan murgiltzen. Aldiz, Maialen Muñozek, inoizko denboraldirik bikainena osatu du 23 urtez azpikoetan. Parte hartutako lasterketa guztietan zapaldu du podiuma, eta gehienetan koskarik altuenean kokatu da, Euskadiko Txapelketan kasu.

Argazkiko laugarren taldekidea, Aimar Agirresarobe da. Berea izango da, seguruenik, taldeko izenik esanguratsuenak. Ez alferrik, ordea; aurtengoan eskuratutako lorpenek

bermatzen dute bere arrakasta. Zarauzko triatloian bigarren eta Espainiako Txapelketako Ironmanean hirugarren eginda, denboraldiko garaipenik garrantzitsuenak Bilbon eskuratu zuen, plazarik zailenetako batean, nazioarteko triatloia irabazita.

Izen propioetatik haratago, halaber, taldea dago, eta sasoi honetan ere, izan du saririk elkarlanak. Neskek Donostiako triatloi olinpikoan lortutako brontzeko dominak, edota mutilek Espainiako Txapelketan lorturiko zilarrezkoak, horren erakusgarri.

Urtetan ereindakoaren fruitua

Pasa den sasoiako emaitzak ikusi, eta horiek lortzeko sekretua non ote dagoen galdetuta, guztiak ados agertu dira: «progresioa, esperientzia, eta urtetako lanaren» ondorio omen dira jasotako sari hauek guztiak. Denboraren poderioz, hedatzen ari omen da triatloia kultura. Muñozen ustetan, triatloia oso kirol gertukoa da gaur egun, eta inguru oso kutsakorra duenez, jendea geroz eta disziplinatua omen da. Aurten, gainera, denboraldi osoan zehar lortu eta ikusi dira emaitza onak, eta horrek taldea elikatzen

omen du Agirresaroberen esanetan, aurrera egiten jarraitzeko indarrak emanez.

Atzean, ordea, ikusten ez den lan handia dago, taldean baino, norberak aurrera eraman beharrekoa. Entrenamenduak urte guztira luzatzen dira, denboralditik kanpo orokor xamarra, baina konpetizio garaia hurbiltzerakoan espezifikatzen eta intentsifikatzen direnak. Asteazken egun bat hartuta, egunero komeni omen da korri, bizikletan ibili edo igerian egiteko tartea atera-

tzea. Hirurak batera ez, noski, baina egunean bi modalitate landu omen litezke, Leundaren arabera. Horrez gain, forma fisikoa mantentzeko, elikaduri ere erreparatu behar izaten diote: «oinarrian, denok dakigu garbi jan beharra daukagula, eta gehiegikeriak asko neurtu behar ditugula», argitu du Agirresarobe. Hala ere, hori praktikan jartzerakoan norberak erabakitzen du zenbateko exigentzia maila jarri. Leundaren ustetan, honekin guztiarekin «bizitza estilo bat» finkatzen da, eta bizitzako alor guztiak nahasten dira kirolaren bueltan. Aldiz, Muñozek dio, berarentzat triatloia «zaletasun bat gehiago» besterik ez dela, eta ez dituela honegatik beste gauza batzuk utziko. Norberak jarri behar neurria.

Triatloia, edonoren eskura

Lau kirolariek azpimarratu nahi izan dute, Tolosaldean modan dagoela kirola egitea, oro har, eta triatloia bera ere indartsu datorrela behetik gora. Alabaina, gazteen falta somatzen dute batez ere. Jende gehiena beste kirolerik hiltzen da triatloira; noizbait korrika, bizikletan edota futbolean aritu, eta hori utzitakoan

“**Behobia prestatzen duen edonork osatu lezake triatloi bat**”

AIMAR AGIRRESAROBÉ

animatzen omen dira asko triatloia probatzera, behin adin batetik aurrera. Bestalde, askok agertzen omen dute interesa, eta baita probatzeko gogoia ere, baina exigentezia edo delakoan, atzera botatzen dira.

Leundak dio, «gogoia eta kirola egitea gustatzea» nahikoa direla mundu honetan murgildu eta, sikiera, probatzeko. «Behobia prestatzen duen edonork osatu lezake triatloi bat», Agirresaroberen ustetan. Kirolari beldurrik ez izateko eta animatzeko diote, eta denei jakinarazi TTT-ko atek zabalik daudela sartu nahi lukeen edonorentzat.

• ataria@ataria.info

Talde barruko giroa, lortutako emaitzen isla

Nahikoa kirol indibiduala da, berez, triatloia. Norberak lan dezente izaten du, normalean, bere eguneroko ordutegian entrenamenduak antolatzen. Horregatik, konplikatua omen da taldekideekin batera aritzea. Tolosaldeko Triatloi Taldeak, hala ere, oso berea omen du talde izaera hori, lau kirolariek azpimarratu dutenez.

Saiatzen dira, batez ere denboraldi hasieran, ahalik eta jende gehien elkartzen korrika egin edo bizikletan entrenatzeko. Baina, horrez gain, lasterketa edota txapelketetara ere denak elkarrekin joan eta etortzen dira. Eta tartean, ahal bada, afarixoren bat edo beste egin ere bai. Giro ona, sana omen dute talde barruan, eta horren erakusgarri da euren bloga ere: <http://tolosaldekotriatloitaldea.blogspot.com.es> helbidean nabari da, kirolaren aitzakian lagun kuadrillak ere sortzen direla.

Gutunak

MILA ESKER GUZTIOI
EMANDAKO
ELKARTASUNAGATIK

Pasa den Urriaren 25ean, orexar jatorria duen Haize izeneko 3 urteko mutiko bati laguntzeko, *Haize bultzadaz aurrera* elkartasun jaialdia antolatu genuen Porrotxen laguntzarekin. Lehenik eta behin Porrotxi eman nahi dizkiogu eskerrak erakutsitako prestutasunagatik eta guzti hau martxan jartzen laguntzeagatik. Eskerrik asko baita ere, nola ez, Txapasi, Bull-i, Orexako txistulari gazteei, Orexako kultura batzordeari, Aulki-ri, Lekunberriko eta Irurako Udalei, Ogiberriri, jaialdi hau aurrera ateratzen lagundu diguten herritar guztiei eta ekonomikoki lagundu digun jende guztiari. Porrotzek ondo dioen bezela «eman ta jaso, jaso ta eman, elkartasuna da hori». Bada oraingo honetan euskal jendarteak elkartasun erakustaldi bat eman du antolatzaileen aurreikuspenak erabat gaindituz. Eskerrik asko guztioi!

Kaixo, Haize naiz eta bultzada honekin, gure egunerokotasuna xamurragoa izaten lagundu diguzue. Laguntza honekin, besteak beste, nire

estimulazio motorra, kognitiboa eta zentzumenetako lantzeko ezinbestekoak diren tratamenduak jasotzen jarraitu ahalko dut (kinea, ortoptista, kiropraktikoa, fisioak...), beharrezkoak ditugun materialak lortzen lagunduko digu, nire zaintzarako lagungarriak diren ikastaroak jaso ahalko dituzte Mikel eta Norak, nire gurasoek... Guztiak ditut beharrezkoak bizitza duin bat eraman eta beste hurrekin batera hezkuntza bat jasotzen jarraitzeko.

Arazoa ez diguzue konpondu, ezta konponduko ere, ni beti izango naizela berezia, baina guztion artean bizia eramangarriagoa izaten lagundu diguzue. (Haize zutik mantentzeko aparailu berria).

Eskerrik asko guztioi eta hurrengo batean elkar ikusi bitartean, nire goraberen berri edukitzeko aukera duzue Facebook-en (Association Sur le chemin d'Haize - Haizeren Bidean), bertan ikus ditzakezue, «haize bultzadaz aurrera» orexako jaialdiaren bideoa, argazkiak, Tolosaldeko Ataria aldizkariaren erreportajea eta niri buruzko beste hainbat berri...

Haize Bultzadaz Aurrera

Zizurkilgo Liburu
Astearen
barruan haur
irakurketa kluba
izango da, gaur

Tolosaldea Garatzenek lau ataletan banatu ditu tailerrak; izena emateko aukerdsfsdfsdfs

ERREDAKZIOA ZIZURKIL

Zizurkilgo Liburu Astearen barruan, gaur, Haur Irakurketa Kluba izango da Atxulondo kultur etxean. Ostiralean, Teodoro Hernandorena XII. Ipuin Lehiaketako sari banaketa egingo da. Larunbatean, aldiz, Zizurkilgo II. Liburu Azoka izango da Aurrera plazan. Bigarren eskuko liburuak euro baten truke, 11:00etatik 14:00etara, eta txistorra pintxoak egingo dituzte guraso elkarrekin. *Aprobetxa ezazu aukera!* bildutako diruarekin Zizurkilgo liburutegirako liburuak erosiko dira. 11:00etan Bukalai Dantza Taldeko dantzarien emanaldia eta 12:00etan Bikokote kale antzerkia izango dira.

Egitarau zabala du
aurtengo Olentzerotan
Jakinminezek, Altzon

Gaur Ze esatek! taldearen solasaldia eta bihar Albisu, Olaizola eta Tolosarekin mahai ingurua izango da

IGOR AGIRRE ALTZO

Hainbat ekitaldirekin osatu dute aurtengoan ere Olentzerotan Jakinminezeko egitaraua Altzon. XVII. edizioak, atzo hasi eta larunbaterainoko jarduerak izango ditu.

Martxoan zendu zen Iñaki Epelderen pintura erakusketarekin hasi zen atzo ekitaldi sorta. Zabaltze ekitaldian, Epelde eta bere lana ondo ezagutzen dituztenen argibideak jaso zituzten gerturatutakoek. Erakusketa ikusgai egongo da larunbatera arte udaletxeko ganbaran.

Bihar, Ze Esatek! musika taldeak solasaldia eskainiko du gazteen lokalean. *Iburprofeno*, beraien azken lanaren inguruan mintzatuko dira talde

azpeitiarreko kideak. Rock, ska eta reggae doinuak uztartzen dituzte azken lan honetan.

Bihar, Jon Ander Albisu, Aimar Olaizola eta Joxean Tolosa izango dira udaletxean. Pilotaren egoera eta etorkizunaren inguruko mahai inguruan parte hartuko dute pilota munduko aditu hauek.

Ostiralean, aldiz, Loatzo Musika Eskolako musikari gazteek emanaldia eskainiko dute elizan.

San Tomas egunean, larunbatean, Irrien Lagunen ikuskizuna ikusgai izango da Frontoian haur eta gazte txoen gozamenarako. Ekitaldi sorta afari batekin amaituko dute altzotarrak. Taloa, hirugiharra, txorizoa, gazta eta gaztainek osatutako menua izango dute Elordi elkartearen 15 eurotan helduek eta 5 euroren truke gaztetxoek. Afal ondorenean karaokea egongo da bertaratutako guztiek XVII. Olentzero Jakinminezi agur esateko.

Olentzerotan Jakinminez

ABENDUAREN 17TIK
ABENDUAREN 21ERA

18:00etatik 20:00etara. Martxoan zendu zen Iñaki Epelde tolosarraren hainbat pintura lanen lagin zabal baten erakusketa jarri dute udaletxeko ganbaran. Asteartetik larunbatera ikusgai izango da.

ABENDUAK 18

19:30ean. Ze Esatek! talde azpeitiarrekin solasaldia izango da gazteen lokalean (eskolapean). Azaroran atera berri duten *Iburprofeno* diskoaren inguruan mintzatuko dira ska, rock eta reggae doinuak egiten dituzten taldekideak.

ABENDUAK 19

19:30ean. *Pelota Airean* izeneko mahai-ingurua Udaletxean: Jon Ander Albisu, Aimar Olaizola eta Joxean Tolosarekin.

ABENDUAK 20

18:00etan. Loatzo Musika Eskolako musikari gazteen emanaldia, elizan.

ABENDUAK 21

17:30etan. *Kultura Plazara*, Irrien Lagunen ikuskizuna frontoian.
21:00etan. Afaria Elordi Elkartearen. Afal ostean, karaokea.

Irudia Bedaio

Kontserben
artean

Bedaioiko Artubi elkartearen baratzeko produktuen kontserba ikastaroa egin dute. Martin Mujikaren gidaritzapean, 3 ordu iraun zuen ikastaroak, eta 17 pertsona bildu ziren jakinmina asetu asmoz. Bukarera jendea «oso gustura atera zen ikastarotik eta bertan ikasitako praktikan jartzeko asmoarekin», azaldu dute. Hurrengo zita baterako gogoia ere izan zen bertaratutako zirenen artean. ATARIA

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Goiza



Arratsaldea



14°



10°

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Bezere arretra zerbitzua (zalantzak argitzeko...): 902 82 02 01

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

**Ataria-k
Bai
Euskarari**



Gipuzkoako Foru Aldundia



'Gure esku dago' ekimena aurkeztu zuten eskualdeko 50 pertsonak, Tolosako Zerkausion. ASIER IMAZ

'Gure esku dago' ekimena aurkeztu dute Tolosaldean

Ekainaren 8an Durangotik Iruñera egingo den giza katearen berri eman dute eskualdeko 50 bat pertsonak

ENERITZ MAIZ

Eskualdeko hainbat herritarrek babestu dute *Gure esku dago* ekimena Tolosaldean. Aurpegi ezagunak bildu ziren Tolosako Zerkausi gaineko terrazan aurkezpen ekitaldian, eta datorren urteko ekainaren 8an Durangotik Iruñera egingo den giza katearen berri eman zuten.

Gure esku dago plataformak eratzten ari dira Euskal Herrian, eta Tolosaldeak ere badu berea, «herri proiektua» dela nabarmendu dute. Garai berriak bizi ditugu Euskal Herrian. Garai berri hauek baliatuz, «elkarlanaren ildotik urrats berri eta sakonak egiteko unea dela» uste dute Tolosan bildu ziren herritarrek. «Ezinbestekoa da elkarrekin aurrera egitea, ziklo berri eta ilusionagarria irekitzeko», eta bide honetan herritarrek protagonista nagusi bilakatu behar direla uste dute. «Herri aske eta libre bat nahi dugunok proiektu honetan bildu gaitzeko», gaineratu dute.

Mota, arlo eta era askotako pertsonak egin dute bat ekimenarekin: Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariek, Iker Galartza, Jon Iraola eta Anjel Alkain aktoreek, Lain eta Desordutan musika taldeek, Ekaitz Saralegik, Iker Karrerak, Aiora Zulaikak, Kike Amonarrizek, Martxelo Otamendik, Iñaki Arratibelek, Joxe Mari Iturraldek eta Emetario Zaldibiak, besteak beste. Guztira 50 bat pertsona elkartu ziren, Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duen giza kate handi bat osatzeko helburuarekin.

• ataria@ataria.info •

Agenda

DEIALDIAK

GAUR

ALTZO. Gaur 19:30etan Ze esatek! taldeko kideekin solasaldia izango da Altzoko gazteen lokalean, . Ska, rock, reggaea da egiten duten musika eta bigarren diskoa kaleratu berri dute, *Ibuprofeno*. Bestetik, Iñaki Epeldereren lanaren lagin zabal bat dago ikusgai udal-letzeko ganbaran larunbatera bitarte, 18:00etatik 20:00etara.

AMASA-VILLABONA. Loatzo Musika Eskolako ikasleek gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur. 18:00etan, Gurean.

IBARRA. Ibarrik Misio Taldearen merkatu solidarioa dago zabalik 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era, San Bartolome plazako elizaren lokalean.

IKAZTEGIETA. Herrigintza elkartearen Tolosaldeko bertsolari gazteekin bertso afaria izango da, hila-

ren 20an, ostiralean, 21:00etatik aurrera. Txartelak Ostatu eta Toki Alai tabernetan daude salgai, 15 euroren truke.

TOLOSA. Antxon Bandres bidaiariaren txokoan *Familia bidaiak: Jo ta ke, 17 urte itsasoan* saioa izango da, gaur, 20:00etan.

ZIZURKIL. Liburuaren Astearren barruan, haur irakurketa kluba izango da Atxulondo kultur etxean, 17:00etan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Farmaziak

Gaur

Tolosa:

Egunekoa eta gauekoa:
Morant Barbier, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

GAURKO ESKAINTZA

Euskal Selekzioa-Peru futbol partidarako sarrerak MAUKAN

MAUKA
berria

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
Julian Gaiarre kalea 48, behe
Bilbo (BIZKAIA)
webmaster@eff-fvf.org
www.eff-fvf.org

Prezioa
23€



www.mauka.eu

berria
taldea



Etorri ataria ko egoitzara 2014ko mahai egutegiaren bila!







San Esteban, 20 • Tolosa
943 65 56 95